

Nafarroako Esaera Zaharrak. Arano.

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

Damaso Intza, Nafarroa-ko euskal esaera zaharrak, 1974.

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Nafarroako Esaera Zaharrak. Arano.

- 785 *Antza-putza baño arroago.*
Bere burua iñor baño geiagotzat daukana.
- 786 *Antzarak perra-tzik! (perra itzak).*
"Oa pikuetara" bezela.
- 787 *Arri jenioa kenduko zioz aitzurrak eta palak.*
Il ondoan, ez bizi den artean.
- 788 *Arkaitzean yaioak arkaitzean nai. Sasian yaioak sasian nai.*
- 789 *Aurra dunak, aurra lan.*
Aurra duena lotua dago, aurrari kontu egin bear.
- 790 *Aurrik ez dunak etxea yan: Aurrik ez dunak mundua yan.*
Aurrik ez duenak neurririk ere ez askotan; duena ta ez duena jateko arriskuan.
- 791 *Aurrena zure etxea garbi zazu, bestearena garbitzen asterako.*
Zerorren utsak ken itzatzu, bestearenak kentzen asi baño lenago.
- 792 *Aurreak, atzeak nola dantzatu erakusten du.*
Irakasleak ez itzez bakarrik, berak aurretik egiñez erakutsi bear du. Zuk egin didazuna egiten dizut.
- 793 *Atso bat il eta bestea itto? adio Pintto!*
Zordun bat il eta besteak iges egin? Orra artzekoduna galdurik.
- 794 *A zer atuna daukaken!*
Zer mozkorra.
- 795 *Azala txuria ta barrena beltza.*
Olakoa da maltzurkerian dabillena.
- 796 *Bakoitza nola bizi den, etxeko laratzak daki.*
Estutasun asko ixillik gordetzen dire, iñori deus agertu gabe.
- 797 *Bereak beretzat eta besterenak erdi bana nai dituen da ori.*
Bereak eta besterenak iretsi nai dituen.
- 798 *Beti neketan ibilli baño obe da bein autsi edo urratu.*
Luzapenetan ibilli gabe.

- 799 *Baserritarren ate-maratillek ez ditu sumatzen kaletar abillek.*
Kaletarrak uste baño geixego daki baserritarrak bere lanetan.
- 800 *Bereak eta gaiñe aittu dizkik.*
Merezi zituenak entzun dizkik orrek.
- 801 *Belarra yorratu eta artoa sasira.*
Jorralari gaiztoaz esana. Kantak ere ola dio: "Arto-yorrara noa lur berri berrira; belarra yorratu ta artoa sasira".
- 802 *Bildu(e)n banatzallea da ori.*
Gurasoak bildua jan besterik egiten ez duena.
- 803 *Biño... Biño (baiño) ori inoiz aditzen ez dudana duk.*
Aitzakiak beti badituk.
- 804 *Biño (Baiño)... Biño ori luzea duk.*
- 805 *Bururik ez duenak txapel bearrik ez.*
Zentzu gutxikoak lan gutxi bear.
- 806 *Dagonean dagonekiko da ori.*
Beti bi aldetara dabillena: batean baten alde, bestean bestearen alde.
- 807 *Elurretan yaio ta izotzetan bataiatue.*
Jende zitalaz esaten da ori.
- 808 *Eskalerak, goiti-beiti ibiltzeko egiñak dituk.*
Gizon, etxe eta errien ondasunak ere bai.
- 809 *Eguerri gaberdian zer aize, urrengo illabeteen aize ure.*
Bai ote?
- 810 *Esku bat eman eta bi artu.*
Umekin eta beste askorekin gertatzen da ori.
- 811 *Gaur bestela etorria naiz.*
Beste eginkizun batzuk etorrarazi naute.
- 812 *Gauza bere denboran, arbi errea abenduan.*
Erderaz ere bereola esaten da.
- 813 *Gezurak adarrak laburrak ditu.*
Gezurra laster agertzen askotan.
- 814 *Gezurrekin yan eta gezurretik bizi.*

Olako jendeak ere izaki!

- 815 *"Gezurtiak zer kastigu merezi du?" galdetu omen zion San Pedrok Jaunari.
Eta Jeusek erantzun: "Egia esatean ez siñestatzia".
San Pedrok berriz: "Jauna, ori kastigu txikia da".
Eta Jesusek atzera: "Ori naikoa da".*

Ipuitxo polita. Oihenart-ek berdin: "Gezurtiak zer du merexi? Egia erraitean ez sinhetsi" (191).

- 816 *Gizon alarguntzia, ta ankazpiko erretzia, bi(a)k igual.
Ain mingarri bata nola bestea.*
- 817 *Gure etxeko andriak emango, idiak yango.
Idia beti prest dagola jateko.*
- 818 *Gibelean ez du orrek arri asko.
Gizon sendoa eta gozoa da.*
- 819 *Guazama, diabru-ama.
Guazamak biotz gutxi, ta berarentzat esker onik ez.*
- 820 *Ik besterengatik zapata-pare gutxi urratuko dituk.
Berekoia dela esateko.*
- 821 *Itzak merke, ta poltsan diru gutxi.
Bizitza itzontzikerian daramanaz.*
- 822 *Iriñe bagiñu eta esnea izan, Ayarratik zartagia ekarri ta aia egingo giñuke.
Zirt edo zart egin gabe ez da jaten eta bizitzen.*
- 823 *Ja ja jai! asteak balira yai! neska alperrak ala nai!*
- 824 *Yakin naiak, konta-naia maiz berekin du.
Ikasi-naia eta ikasia beste irakatsi-naia ez da gauza txarra, non ta ez den izketa
utsaletarako bidea.*
- 825 *Yarri egiok ollagorra irago ta ondotik lazoa.
Alper-lana egitea da ori.*
- 826 *Jangoikoak ematen du zenbat otz ainbeste soñeko.
Bear bezala eskatu ezkerro.*
- 827 *Yostaketa luziak azkeneko negarra. Amaika aldiz ori gertatzen!*
- 828 *Kandelera otz, negua motz; Kandelera bero, negua gero.*

Ola beste asko lekutan eta beste izkuntzetan. Oihenart-ek: "Ganderalu hotz, negua botz: Ganderalu bero, negua Pazkoaz gero" (178).

- 829 *Laratzak muturra beltza du.*
Laratzak kedarrez belztua egoten dela, egia; eta sukaldeak asko eskatzen duela ere bai.
- 830 *Magdalen aste, ezpara aste.*
Ezpada, ezpara, listorra (Magdalena uztaren 22'an).
- 831 *Maiatzeko aza, gizona iltzeko.*
Garai ortan azak gogorturik daudelako.
- 832 *Martxo garaartxo, oraindik ez nauk ire bildurtxo.*
- 833 *Martxo-lore, pirri-lore; apiril-lore, urrien lore; maiatz-lore, utsa baño obe.*
- 834 *Min artzen dunak atx! egiten du.*
Mindunak ai! ai! egiten du.
- 835 *Ni ez nago zurearen bearrean, zu ere ez nerearen bearrean; biok kitto.*
Bi lagun elkarrekin aserretu diranean esana.
- 836 *Non illundu, an ostatu; orrekin ez yostatu.*
- 837 *Nolako aurrekoak, alako ondorekoak.*
Nolako gurasoak, alako umeak.
- 838 *Ordañez, ollasko!*
Zitalkerian esana: zuk egin didazuna egiten dizut nik zuri.
- 839 *Orain ar zak ori lepotik!*
Arrapa zak ori.
- 840 *Ontza-putza baño arroagoa.*
Ontza-putza = otsaputza, astaputza.
- 841 *Oñezkorik nai ez, ta zaldizkorik izan ez.*
- 842 *Orrek beti adar bat falta dik.*
Burua ez zeukak oso ongi.
- 843 *Porron ederra duk ori!*
Itzontzi ederra.

- 844 *Sasian yaio, sasian nai; gure astoak ez du etxera nai.*
- 845 *Sasitik atera ta txaparrean sartu.*
Lanbide bat txarra delakoan utzi eta txarragoa artu.
- 846 *San Jose: kazkaabarra ortzetan.*
Eguraldi txarra izaten askotan egun artan.
- 847 *Xardin erdia yan, xardin erdia lan; xardin osoa yan, xardin osoa lan.*
- 848 *Txikia, politt.*
Emakumeaz esaten da geienetan.
- 849 *Txoria neguan goseak omen zegon eta txingurriari yoan omen zitzaion jateko eske. Orduan txingurriak galdegin:*
- *Udan zer aitu, txori?*
- *Udan a(r)itu niñuan kantari.*
- *Orain abil bada dantzari.*
- Ipui edo alegia oso ezaguna. Baiñan alegi ortan txoria ez baiña txitxarra (tírritta) joaten zaio txinurriari jateko eske.
- 850 *Umeak azi, zartu ta nekeak bizi.*
Beste leku batzuetan: Umeak azi ta nekeak bizi. Umeak aztean, eta bai zartzean ere nekerik asko sortzen zaie zenbait gurasori ume oien eskergabekeriak.
- 851 *Urrutiko intxaurrak amalau; aldera orduko lau.*
Urrutiko kontuak ez bereala siñistu, urrutiko gauzak ez dire diruditen bezain onak. Oihenart-ek: "Urrunago, berriak handiago" (472).
- 852 *Zaian zur eta iriñetan ero.*
Aspaldiko eta toki askotako esaera.
- 853 *Zer modu? -Zer esango dia(g)u? goizean gutxi, eskas eguardian; artakoz otordu onik egin gabe, pixkaren guardian.*
- 854 *Zurra(r)en poltsak bi zulo.*
Bera ta etxeakoak gosez, eta azkenean bestek jaten guzia.